

Ordizian, 2016ko ekainaren 20an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

Carlos Gonzalez Astiz jauna (IRABAZI) ere azaldu da.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Igor Eguren Izagirre	EH Bildu Ordizia
----------------------	------------------

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2016ko maiatzaren 23ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
  - .- 6.000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.
  - .- Goierriko Herrien Ekintzari ekarpenak.
  - .- EKIMENAren kontratua.
  - .- Plan Estrategikoa egitea.
  - .- Droga-mendekotasun plana.
  - .- Mugikortasun-mahaia.
  - .- Sasietaekin bilera.
  - .- Errefuxiatuen eskubideei buruzko uztailaren 20ko adierazpena.
  - .- Banku Etikoa.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16,20



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko maiatzaren 23ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko maiatzaren 23ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Gonzalez jaunak hitza hartu du eta ondorengo zuzenketak egiteko eskaera egin du:

4. Puntua.-

Adierazi du OHZn bigarren etxebizitzengatik jasotzen diren diru-sarrerak orekatu behar liratekeela akolairu sozialera bideratutako gastuan erabiliz.

5. Puntua.-

Azalpenak eskatu zituen eta Sasieta Ordiziako Udalaren ordezkari direnekin ados ez zegoela jakinarazi zuen Batzordean, kontainerren ordainketaren gaiaren inguruan hondakinen mahaiari ez ziotelako jaramonik egin. Kontainerren ordainketaren ondarea dira eta ez da bidezkoa Ordiziak ordaintzea. Gainera Alkateari eskatu zion kontainerren ordaintzen badira, berehala jarri beharko liratekeela.

Txostenak eta hainbat eskari puntua.

Bizilagunen Elkartarekin bilera egin zuela jakinarazi zuen eta dagoen bizilagun elkarte mugimendu murrizta babestu behar zuela uste zuela eta beraz, elkarte hau zaindu behar zela. Alkateari egindako eskaeren berri eman zion eta jakinarazi zion eskaera horien artean konpontzeko errazak eta azkarrak ziren eskaerak bazeudela. Alkate jaunak erantzun zion esanez Arantxa Fernandez andreak horren ardura hartu zuela.

Esan du, IRABAZI eskaerak hierarkizatzen laguntzen saiatu zela eta hainbat instituzio erakunde eta kontseilutara sartu behar zituztela esan zion eragin handiagoa izan dezaten eta kultur, gizarte era kirol ekintza gehiago jaso. Udalerrian gehiago integratzen laguntzeko.

Aho batez onartu da Astiz jaunak eskatutako aldaketak sartu ostean.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 31. zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 40.269,09.-€

*Aldeko irizpena jaso dute.*



3.- AOTa ordezkatzeko bitarteko funtzionarioa izendatzea.

*Aldeko irizpena jaso dute.*



4.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturak.

29,30. eta 32. zenbakidun zerrendaren berri eman da.

*Aldeko irizpena jaso dute.*

.....

.- Goyerri Herrien Ekintzari egindako ekarpenei buruz eta finantzaketari buruz Kontuhartzaileak bidalitako posta elektronikoaren berri eman du Alkate jaunak.

Gaia Kontuen Epaitegira pasa.

.....

.- Dubreuil jaunak jakinarazi du EKIMENArekin kontratua sinatuta dagoela dagoeneko eta bihar bilera egingo dutela proiektua martxan nola jarriko den ikusteko.

.....

.- Plan Estrategikoa: Plan Estrategikoa egiteko SIIS enpresaren eskaintza. Idazkariak eskaintza aztertuko du esleipen kontratua idazteko.

.....



.- Droga-mendekotasun plana. Dubreuil jaunak adierazi du 2013. urtetik ez dela planaren berrikusketa egin baina Mendekotasunen Lege berria indarrean sartzearekin batera plan berri bat onartu behar dela.

Festetarako proposatu den egintzei buruzko informazioa eman du.

.....

Gonzalez jaunak mugikortasun Mahaia noiz eta nola eratuko den galdetu du.

Alkate jaunak erantzun dio esanez Hondakinen Mahaiaren antzeko prozedura egingo dela. Festen aurretik eratuko da eta abuztu ostean ipiniko da martxan.

.....

Sasietan gerentearekin eta teknikari batekin hondakinen bilketarako sistema berriaren ezarketari buruz hitz egiteko izandako bileraren berri eman du Alkateak. Batzordeko kideei aurreikusitako kronogramaren berri eman die.

.....

Dubreuil jauna: Errefuxiatuen eskubideei buruzko uztailaren 20ko adierazpena.

Eusko Legebiltzarrak onartutako adierazpenari atxikitzea proposatzen du. Errefuxiatuen giza eskubideei buruzko maiatzaren 12ko 48/2016 Legez besteko Proposamena.

*Bertan dauden kideek adostasuna azaldu dute.*

*Udaleko alderdi guztien adierazpen bat egingo da.*

.....

Dubreuil jauna: Zaharren Egoitza eraberritzeko lanen egokitzapen eta birgaitzeari buruz galdetu du. Nola dago gaia?

Alkate jaunak erantzun dio.

.....

Sukia Andrea: Banku Etikoari buruz galdetu dio. Alkate jaunak erantzun dio.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

